

# Ideia arrunten aurkako txertoa

**Nekane  
Zinkunegi  
Barandiaran**

Ideia arruntek sekulako indarra dute, azkar eta asko hedatzen dira, eta horiek aldatzea oso konplexua da». Xabier Aierdi soziologoari entzun nion esaldi hori, duela pare bat hilabete, eta buruan bueltaka darabilkit azken aldian. Covid-19ari aurre egiteko txertoaren bueltan sortu den eztabaidagatik, zehazki.

Oro har, esango nuke txertoa agertu izanak itxaropena eragin duela. Baina txertoaren aurka sutsuki ari direnak ere badaude, errezelo handiz dihardutenak.

Ez ditut horiek, txertoaren aurka daudena, negazionisten zakuan sartuko. Baina amorrarazten naute txertoaren aldekoen aurka dihardutenek. Zilegi bada txertoaren aurka egotea, zergatik tematzen dira alde egiten dugunon aurka?

Eta, noski, ez nuke inozoa izan nahi. Txertoa gure artean egoteak ez baitu esan nahi dena konpondu denik. Osasun zerbitzuak ez direlako indartu, ez dagoelako txertaketa aurrera eramateko behar adina erizain. Hartutako neurri batzuek gure eskubideak murriztu di-

tuzte, bai, baina askatasun indibidualaren izenean nagusitzen ari den egoismoak ere ez dakar ezer onik.

Farmazia konpainiei publizitatea egiteaz kexu dira asko. Ados, enpresen arteko lehia hor dago, eta gizateriaren ongizatearen aurretik, nork bere etekinen alde egiten du. Baina orduan, txertoa da okerra, hala horren sorrera, proba eta banaketarako sistema? Zeren aurka gaude? Beraz, ideia arruntetatik harago begirada jaso eta hausnar dezagun zeren aurka eta zeren alde egin behar dugun. •

# Poz pixka bat

**Joxean Agirre**

Bere jaioterria, Urretxu, elurrak zuritu zuen egunean, Jon Maiak txio hau idatzi zuen: «Lehen, haurra nintzenean, elurra egiten zuen. Orain elurra egiten duenean haurra naiz». Eta arrazoi du, elurrak gehienoi berderen bozkario txoro bat eragiten baitigu, umetasunarekin lotura estua duena.

Lehen, Hernio zuritu zuela ikusi orduko eski zaharrak hartu eta joaten ginen Zelatunera. Orain, joan den astean behinik behin, arazo larriak zeuden Iturriotzen, Itumetan edo Bidania gainean autoa uzteko, halakoxea baita jendeak elurra zapaltzeko duen irrika edo poz beharra. Oinez igo naiz birritan Zelatunera. Ez da gauza

bera, baina elurrak parajea aldatzen du, gure ibiltzeko modua eta izaera, eta zili-purdika ibiltzeko aukera ematen duelako edo (surfak bezala), umeago egiten gaitu.

Elurrak kanpora begira jartzen gaitu eta euriak barnera begira. Ez dakit nork esan zuen euria letrarik gabeko doinu bat dela, doinurik ederrenetako bat. Letrarik gabeko melodia hori entzuten nagoenetan gogoratu ohi naiz ez ditudala jakingo dozena erdi bat kanta osorik eta bertso sortarik gutxiago. Lehen halako larridura batekin bizi nuen gabezia hori Iñaki Murua bertsolariak berari ere gauza bera gertatzen zitzaiola esan zidan arte eta berak ez zekizkien kanta asmatu egiten zitue-

la. Mezatarra joaten zen sasoian, esate baterako, ondoan aulkian eserita zituenak harrituta edukitzen omen zituen begira, asmatzen zituen letrak ez zutelako zeri-kusirik elizan kantatzen ari zirenekin. Geroztik ni ere saiatzen naiz ez dakizkidan letrak asmatzen eta ez beti, ez bainaiz Iñaki Murua, baina tarteka jatorrizkoaren parekoak direla iruditzen zait. Euriarekin ez, euria entzuten jartzen naizenean ederra goa iruditzen baitzait isiltasuna.

Bizi dugun osasun egoerak baikorrenok ere kezkatu egiten gaitu eta ezkorak deprimitu. Elurrak, alde horretatik, errepidean ibiltzetik bizi ez garenoi behinik behin, poz pixka bat ekarri digu. •